



Goi mailako kirolaria, 76 urterekin

Rosario Tomasena Alzuri urnietarra goi mailan ari da triatloian eta igeriketan / 2-3

Adarra trail lasterketaren lehen edizioa

Igande goizean abiatuko da lasterketa Goikoplazatik. Onddo eta Adarra zeharkatuko ditu 21 kilometroko lasterketa gogorak. Helmuga Goikoplazan ipini dute / 10



**Merkataritza
Indarberritzeko
Plan Berezia
aurkeztu du
Urnietako Udalak** / 7



**Familia lagunen
bilkura Zumeatarra
elkartean, Magreb
aldeko jakiak
dastatzeko** / 8



**Andoain-Alegi
Herriartekoan,
joaneko partida,
ostiral honetan,
Arrate pilotalekuan** / 11

BETI ZUREKIN

Bertako Igogailuak-ekin, urteko 365 egunetan
24 orduz izango duzu gure zerbitzua.
Salbuespenik gabe.



bertako
Igogailuak-ekin

www.bertako.eus



ZUKOJA JAISITAKO
OBJEKTUAK
BERRESKURATzea



HARRAPATZE
EGERRAK



IDEAGAILUKO
ZARATAK



365/365/7

ARABA
945 712 822
GIPUZKOA
943 903 450

BIZKAIA
946 523 935
NAFARRROA
848 870 917



76 urte ditu Rosario Tomasena Alzurik eta kirolari amorratua da. AIURRI

“Eman diezadakedan beste eskatzen diot gorputzari”

ROSARIO TOMASENA ALZURI, TXARO TRIATLETA ETA IGERILARIA

Bi erronka ditu begiz jota: Japoniako Master Olinpiar Jokoak eta Gibraltarreko itsas-zeharkaldia. Dominari balioa eman baino, nahiago dio ahaleginari eman garrantzia

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Kirola osasuna da Rosario Tomasena Alzuri, Txaro urnietarrentzat. 76 urte ditu eta erronka gogorren atzetik dabil igerian, bizikletan eta korrika, orain hamarkada batetik hona, batez ere. 2021. urtean, Europako txapelduna izan zen triatloi sprintean, baita Espainiako txapelduna ere triatloi olinpikoan, sprintean eta super-sprintean. Era berean, Espainiako txapelduna izan zen zortzi ur frogatan, bai igerilekuan, bai ur irekietan.

Oktatloiean trofeoa irabazi zuen eta Espainiako errekorra dauka 800 metro libre modalitatean. Hamarkada bete garaipen, beraz, eta orriotako lau izkinetan kabitzen ez diren beste hainbeste lorpen ditu zintzilik.

"KIROL-JARDUERA SERIO ETA TXUKUN EGINEZ GERO, EDOZER GUSTATZEN ZAIT"

Hamar urte egin behar da atzera zure kirol-ibilbideaz hitz egiteko. Lehenago ere hasi al zinen kirolean?

Nire egunerokoan ez zegoen kirolerako aparteko lekuri. Mendizaleak gara senarra eta biok, eta, asteburuan, irteerak egiten genituen. Baina kirolari ibilbideari, bere horretan, 65 urterekin ekin nion, entrentzaile pertsonal batekin, fundamentu handiz.

2003an, Astigarragako lagun batekin batera, Getaria-Zarautz itsas-zeharkaldia egin nuen,

baita asko gozatu ere. Horregatik, igeriketari heldu nion hasieran, 69 urte bete arte. Ondoren, hankak indartzeko asmoz, korrika egiten hasi nintzen. Horrela, nire lehen triatloiean hartu nuen parte. Bizikletan ibiltzen ikasi egin behar izan nuen, ez bainekien.

Egun, biak egiten ditut: alegia, urte erdiz buru-belarri igeriketa-probak prestatzen aritzen naiz, eta, gainerako sasoiean, triatloiak. Halere, lehiaketen araberako prestaketa egiten dut.

Kirola serio eta txukun eginez gero, edozer gustatzen zait; horretarako, buruak zein gorputzak laguntzen dutela sentitu behar dut. Batzuetan, ez da irabazten, erdizka gelditzen zara, baina garrantzitsuena da zure esku dagoen hori ondo egin duzula sentitzea, gustura sentitzea. Dominei balioa eman baino, nahiago diot ahaleginari eman garrantzia: "Nola egin dut proba?", galdetzen diot neure buruari. Esate baterako, joan den urtean, lehenengoz, Europa mailako triatloi bat egitera joan nintzen. Gauzak txukun egin nahi nituen: arazo dezente izan nituen igeriketako zatian, bidea oztopatzen zidatelako lehiakideek. Bizikleta erronka handia izan zen niretzat, jende mordoxka pilatu ginen, eta baten batek atzetik joko ote ninduenaren beldur nintzen, iraganeko istripu bategatik. Azkenik, korrika saioa ezinhobe atera zitzaidan, nahiz eta meñiskoa apurtuta eduki. Europa mailan eskuratu nuen urrezko domina, hala. Nolanahi ere, niretzat garrantzitsuena da inoiz triatloi batean egin dudana denbora onena lortu nuela egun hartan. Hori da poz handiena, arazoak arazo, oso emaitza ona eskuratu nuela (01:53').

Kirola egitean, gorputzari jaramon egitea garrantzitsua al da?

Berebizikoa. Gaitz arraro bat dut pasa den abendutik, *Arteritis de celulas gigantes* delakoa; buruari eragiten dio eta ahalegin fisiko handiko egoeren aurrean buruak nola erantzuten didan ikusi behar dut. Entrenamenduetan, hori lantzen hasi

"BURUKO ETA GORPUTZEKO OSASUNAGATIK EGITEN DUT NIK KIROLA"

naiz; alabaina, berriki egin ditudan txapelketetako emaitzei erreparatuta, uste dut aukera izango dudala. Sendagileek esan didate horrela jarraitzen badut, nire bi erronkei eutsiko diedala: triatloi olinpikoa Japoneko Master Joko Olinpikoetan eta Gibraltarreko itsas-zeharkaldia. Mantso-mantso, pazientzia handiz, baina, egunero, aurrera.

Alabaina, burua ere prest eduki behar duzu horrelako erronketan, ezta?

Oso prest. Joan den urrian, Madrilen egin nuen triatloi super-sprint delakoa izan da nire bizitzako erronkarik gogorrena. Bi triatloi ziren, elkarren segidan, birritan honako itzuli hau: 300m igerian, 5km bizikletan eta 1km eta 300m korrika. Eguzkia pare pare genuen uretan zein bizikletako tarte batzuetan; uretan, buiaren kontra jo arte, ez genuen ikusi ere egin! Bizikletako zatia oso maldatsua zen; hotz handia genuen, eta, ondorioz, muskuluek ez zidaten behar bezala erantzuten. Egoera horretan, aurrera egiteko agintzen zidan buruak. Txapeldun bukatu nuen. Espainian, triatloi olinpikoa, sprint-a eta super sprint-a egin duen lehen emakumea naiz gure adinaren bueltan (+70 urte eta +75 urte).

Aitzindari zara, hortaz.

Hala gertatu da bai, baina horrek ez dit harrotasuna eman, izan ere, buruko eta gorputzeko osasunagatik egiten dut nik kirola. Denboraren poderioz, norbana-koa gaitasunak galtzen doala diote. Bada, urtetik urtera, erronkak ipintzen dizkiot neure buruari, eta egin, egin behar ditut. Momentuz, gauzak ondo doaz.

Eta zein da sekretua?

Oso mugitua naiz eta egiten dudana gauza oro ondo egitea dut gustuko. Egia da ez nuela inoiz pentsatu triatloi bat egingo nuenik. 69 urterekin hasi nintzen; ez zitzaidan burutik pasa ere! Genetika nahiko berezia dudala diote; tomasenatarak zein alzuritarak sasoi onekoak izan gara. Ama hama-sei urterekin mutilekin aritzen zen pilotan jolasten Aranoko pilotalekuan, pentsa!

Zein entrenamendu egiten duzu garaipen horiek guztiak lepoan zintzilik izateko?

Orain, gaitza daukadanez gero, eguneko gauza bat egiten dut. Esaterako, Anoetan izaten naiz ordu eta erdiz. Martxora bitar-



Orain hamarkada bat hasi zuen Txarok bere kirolari ibilbidea. Joan den urtean, hamairu urrezko domina eskuratu zituen. TOMASENA

te, gutxi gorabehera, bakarrik egin ditut entrenamendu guztiak, kontrolaturik, jakina. Orain, berriz, taldean ari naiz kirolean, Kairoscoreekin, eta askoz ere politagoa da. Gainera, martxa galdu ez dudala ohartu naiz, bixi ikusten dut neure burua. Beste zenbait egunetan, fisikoa lantzen dut. Istripua izan baino lehen, hiru bider gehiago entrenatzen nuen. Orain, horrelaxe behar du nire gorputzak. Lehen-go astean hasi nintzen bizikleta eta lasterketa lantzen.

Osasun-azterketak egitea garrantzitsua al da zure adinarekin?

Sei hilean behin egiten ditut osasun-azterketak, nire bizitzako probarik handiena egitear nago-eta: Master Joko Olinpikoak garrantzitsuak dira, baina inportanteetan inportanteena Gibraltargo itsas-zeharkaldia da. Izan ere, mugara eramango dut gorputza: erritmo jakin batean egin behar dut, sei edo zazpi bat orduz.

Halaber, niretzat kirola osasuna da, sendagaia. Ohartu nintzen, adibidez, nire sorbalda eta belaua sendatzeko kirola behar nuela. Nire hezurak kaltetu egin ziren kirolik egin gabe egondako urtebete luzean. Osteoporosia nuen bi ozotan, eta, aldakan, osteopenia. Kirolak osatzen lagundu ninduen. Dena dela, kontrol zorrotza eraman behar dut janarekin, hidratazioarekin zein atsedenearekin. Gorputza asko zaindu behar dut.

Eta askok esango didate ea egiten ditudan kirol-probekin zainterik badaukadan. Ariketa fisikoa egiten dudanean, gorputzak esaten dit noraino heldu naitekeen. Iragan urteko lau triatloiak axubeta gabe amaitu nituen; lanketa egin dudalako da hori eta eman diezadakedan beste eskatzen diodalako gorputzari, behartu gabe, nahiz eta txapelketetan asko exijitu.

Istripua aipatu duzu behin baino gehiagotan. Hori izan al da lesiorik garrantzitsuena?

Bai, 2019. urtean. Atzetik kolpatu ninduten bizikletan, Inpernu auzotik (Donostia) gertu dagoen biribilgunean, Triku triatloi lasterketan. Txapelketa herrikoietan, normalean, bizkor joaten ahalegintzen naiz, segurtasuna medio. Bada, egun horretan buruan nindoan; biribilgunean sartzeko frenatu egin behar izan nuen, eta gazte batek atzetik eman ninduen eta beste bi elkargurutzatu zitzaizkidan. Ondorioz, burua espaloiarekin kontra kolpatu eta sorbalda atera zitzaidan.

Dena dela, kirola egiten jarraitzen duzu 76 urterekin. Zer esaten dizu jendeak?

Lehen begiradan, jendeak ez du uste hain kirolzalea naizenik. Baina, behin ezagututa, harri eta zur gelditzen dira. "Zu bezalakoa izan nahi dugu", esaten didate, eta nik erantzun: "Zaindu zaitezte eta eman egurra!". Mendian izan ezik, gainerako

ariketetan, aditu batek, entrenatzaile pertsonalak zuzentzen nau. Pausuak ez badituzu behar bezala ematen, lesioak segituan etortzen dira.

Ezkutuko biziorik ba al du Rosario Tomasena?

Ezin dituzu eduki, osasuna puntu-puntu izateko, ez behintzat. Istripua izan arte, kafe bat hartzen nuen egunero. Harrezkero, ura besterik ez dut edan, ez beste ezer. Horrela lortu nituen joan den urtean hamahiru urreak. Hamahiru zenbakiarekin harreman berezia omen duzu.

Zenbaki berezia da, martxoaren 13an jaio bainintzen, orain 76 urte. Bestalde, nire senarrak urte batzuk daramatza gaixo, eta, iaz, nire kezka handiena

zen ea ez ote ginen urriaren 13ra ailegatuko, urrezko ezteiak bete baikenituen. Sekula ez dut horrelako sorpresarik egin; urtarilaren lehen egunean hasi nintzen prestatzen gure urteurreneko oparia, eta ezusteko atsegina izan zen niretzat: orotara, hamahiru urre lortu nituen martxotik urrira bitarte parte hartutako probetan, hainbat errekor eskuratzear gainera, igerian nahiz triatloian.

Ba al daukazu hamar urteko kirol-ibilbidean lasterketa kuttunik go-goan?

Erronka zailak gainditzea izan ohi da niretzat garrantzitsuena. "Reto del Ebro" delakoa egin nuen 2018an, Tuterako triatloi sprint-a. Goizean goiz, bero handiarekin jaiki ginen egun hartan; eguerdirako, 36 gradu egiten zituen. Eta ibaia 1,5 metroko igoerarekin zetorrela entzun nuen herrian. Arratsaldean, uretan entrenatu genuen: izugarritzko korronea zegoen, baita haizea ere. Gure bila etorri behar izan zuten. Entrenatzaileak, hala ere, lasterketan parte hartuko nuela esan zidan: korrontearen kontra zuzen-zuzenean jo gabe iritsi nintzen boira; lortu, lortu nuen, baina, kostata. Behin hori gaindituta, bizikleta hartu genuenean, Moncayo ziertzoak (haize hotza) gogor jotzen zuen, ertzaren kontra bota ninduen, baina ez nuen erretiratu nahi izan. Jarraian, euria, kazkabarra. Bizikleta es-

kuekin hartu nuen Ebro gaineko zubia igarotzeko, eta, aurrera! Korrikako tartean, ez genuen arazorik eduki. Oso gustukoa dut lasterketa hori, erronka handia izan zelako.

2015ean, Errusian izan nintzen, Kazan hirian. Bada, ur irikien munduko txapelketan parte hartu nuen, Kazanka ibaian, Volgaren adarrean, ibai hartara ailegatzeko 500m-ra. Izugarria izan zen. Oso eguraldi txarra egiten zuen, eta parte-hartzaile askok egin zuten atzera. Denboren arabera, laugarren postuan gelditzea aurreikusten nuen; alabaina, ttirripi-ttarrapa, zilarrezko domina lortu nuen. Horrelako leku batean igeri egite hutsa zoragarria da. Bled lakuan (Eslovenia) ere murgildu nintzen, duela hiru urte: ur hotzetan, 3000m egin behar izan nituen egun batean, eta, biharamunean 5000m. Nire denborarik onenak eskuratu nituen bietan; hotzak eman zidan gasolina!

Aurrera begira, horrenbestez, bi helmuga, ezta?

Gibraltarreko itsas-zeharkaldia begira nago, baita Japoneko Master Olinpiar Jokoetako luzeera olinpikoko triatloiari ere. Horiexek dira nire helburuak; gaur gaurkoz, martxa hartzen ari naiz berriro ere. Ikusiko dugu. Unean-unean dagokidana egiten dut: nire burua zaindu, kirola ondo egin eta ilusioa izatea; horretarako, erronka garrantzitsuak behar ditut.



Etxea dominez beteta du. AIURRI

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



IRITZIA

KIKE AMONARRIZ EUSKALTZALEEN TOPAGUNEKO LEHENDAKARIA

Kalera ateratzeko eta aktibatze garaia



Kike Amonarriz. TOPAGUNEA

2022a, hitza eta ekimena indartzeko urtea izan behar zuela aldarrikatu genuen Alizia Iribarrenekin eta biok AEKren eta Euskaltzaleen Topagunearen izenean joan den urtearen amaieran hainbat hedabidetan argitaratutako artikulu batean. “Korrikarekin nahiz Euskaraldiarekin, berriz kalera ateratzeko garaia” zetorrela nabarmendu nahi izan genuen, pandemiak kalte nabarmenak eragin baititu euskararen biziberritze prozesuan.

Euskararen normalizazioa ezer baldin bada, prozesu soziala da, eta koronabirusak, hain zuzen ere, etxeratu eta bakartu egin gaitu, gure harremanak murriztu egin ditu, ingurune erdaldunetako haurrak eta gazteak

euskararengandik urrundu, talde antolatuak ahuldu, eta hamaika egitasmo bertan behera uztera behartu. Gure hizkuntza komunitateak sendotzeko ezinbesteko dituen harremanek, antolaketak eta ekintza kolektiboek sakonki nozitu dute egoera. Guztiz beharrezkoa da, beraz, herritarrak eta gizarte-eragileak berraktibatzea, kalea berriro hartzea, euskararen aldeko dinamika eta antolakundeak piztea, eta euskara agenda sozial, politiko eta komunikatiboaren erdigunerara eramatea.

Covid19a, ordea, ez da euskara eta euskaldunak eraso gaituen birus bakarra. Beste batzuk aipatzearren: epaitegietatik EAEko normalizazio-prozesua tratu nahi duten epaiak iritsi dira, hainbatetan guztiz arrazoinamendu txepeletan oinarrituta (euskararen zailtasunarena, kasu), murgiltze-eredua Damoklesen ezpatapean dago Iparraldean, Nafarroan euskararen garapena eta euskaldunon hizkuntza-eskubideak murriztuko dituzten arauak ari dira onartzen, eta gero eta ozenago entzuten dira ultraeskuinen eta haien diskurtso homogeneizatzaila eta supremazisten ahotsak espainiar eta frantziar estatuetan.

Egoera honen erdian, azken Korrika kemen eta energia ufada animalekoa suertatu da. Euskal Herriko bazter guztietatik eta bazter guztietara HitzEkin hedatu den tsunami euskaltzaleak ilusioa barreiatu du ibilbide guztian zehar, irudi ahaztezinak eskainiz. Euskarak berriro kaleak indartsu hartu ditu. Azken Korrika, euskal herritarrok euskara biziberritzeko dugun desio ukaezinaren irudikapen argia izan da, eta euskaldunok euskaraz eroso bizitzeko dugun nahiaren adierazpen zuzena. Orain, hitzez ekiteko garaiak datozkigu. Eta baita aldarrikatzekoak ere.

Maiatza, eta datozen hilabeteak, euskaltzaleak aktibatzeke deialdiz eta aukerez mukurru datozkigu. Baitezpadakoa izango da euskaldunok modu masibo eta egokian erantzutea eta parte hartzea berauetan.

Hasteko, larunbatean, maiatzaren 7an, Euskalgintzaren Kontseiluak eta berau osatzen dugun erakundeok deitutako manifestazioa izan berri da

"AKTIBAZIO SOZIALA ERAGIN ETA MANTENTZEKO EZINBESTEKOA DA ANTOLATZEA"

Iruñean “Herritarrak ez gutxietsi” lelopean. Hiriburuaeren karrikak euskaltzalez bete behar ditugu, bizikidetzak, hizkuntza bizikidetzak ere izan behar duela adierazteko, nafar guztien hizkuntza eskubideak aldarrikatzeko, eta administrazioan eta hezkuntzan hartu nahi diren neurri atzerakoiak salatzeke. Asko dugu jokoan.

Maiatzaren 8an, Senpereko aintziraren inguruetan elkartzeke aukera izan dugu berriz ere, Herri Urratsi, Seaskari eta murgiltze-ereduari babesa erakutsiz. Eta maiatzaren 21ean Gazte Euskaltzaleen Sareak bultzaturiko “Euskara aurrera” manifestazioan elkartuko gara Donostian, gazteek erakutsi duten aktibazio-nahia sustatuz.

Bien bitartean, auzoz auzo eta herriz herri, aurreko edizioak baino masiboagoa izan dadin ahaleginduko garen Euskaraldia prestatzeko lehen urratsak ematen hasiak gara, Batzordeak antolatzen eta aurkezpenak egiten. Herritarrok eta era guztietako entitateek eta erakundeek euskararen aldeko urrats praktikokoak eman ditzagun oinarriak jartzea dagokigu hilabeteotan Euskal Herri osoan zehar.

Aktibazio soziala eragin eta mantentzeko, baina,

ezinbestekoa da euskaltzaleen gune autoeratuak antolatzea. Horretan ari da Euskaltzaleen Topagunea duela 25 urte sortu zenetik. Uda ondoren antolatuko dugu karia horretara ekitaldiren bat, baina, ospatzeko modu ezin hobea izango dugu ostiraleko Batzar Nagusian Hendaian, zazpi elkartek eskatu dutelako bazkide izatea: Biarritzeko Mintza Lasai, Baionako Biltxoko, Izturitzeko Artetxea, Larresoroko Ote Lore, Amikuzeko Zabalik, Iruñeko Laba eta Zumaiako Larraina. Topagunea benetako nazio-erakunde bihurtuko duen urrats historikoa izango da ostiralekoa. Lerro hauetatik, dei bat luzatu nahi nuke euskara talde edo elkarterik ez dagoen auzo eta herrietan, euskaltzaleak elkartu eta sor ditzaten. Topagunean laguntzeko eta bultzatzeko prest gaituzue.

Hasieran aipatu dudan artikulutik ateratako hitz batzuekin amaituko dut: “Euskararen biziberritze-bide honetan, guztion ekarpena behar-beharrezkoa izango da: herritarrona, gizarte-mugimenduen, erakundeena eta era guztietako entitateena. Soilik elkarlanean eta denon bultzadaz lortuko dugu euskarak aurrera egitea, guztiok baitugu egin, eragin eta eginarazteko aukera”.

IRITZIA

XABIER LASA MEMORIA HISTORIKOAREN IKERTZAILEA, ANDOAIN

PSOE alderdia eta memoria historikoa

Apirileko udal batzarraldian xextra eduki zuten PSE-EEko Maider Lainezek eta Petri Romerok eta Podemos-Ahal Duguko Teresa Santana zinegotziek, Errepublikaren bandera balkoian zintzilikatu ala ez zela eta. Askorako ematen du banderaren kontu horrek, baina eztabaidan barrena, Lainez alkateak memoria historikoaren gainean egin zituen zenbait adierazpenek deitu zidaten arreta. Hona pasarte esanguratsuena, gaztelaniatik euskarara itzulita: “Zein alderdi izan zen memoria historikoaren legea onartu zuena? Zein alderdik bultzatu du bide bazterretako desagerraraziak ikertu eta handik ateratzea? Zein alderdik lortu zuen Franco zegoen tokitik ateratzea? Hortaz, leziorik guri, batez!”.

Egiatik urrun dagoen ikuspegia dela iruditzen zait, frankismoaren eta berak eragindako biktimen inguruko memoria historikoa gertu-gertutik bizi dudan heinean. Ez baitut uste, inolaz ez, estatua harro egon daitekeenik gai horretan aplikatu dituen politika publikoekin. Kontrara, autokritika latza egiteko daukala esango nuke.

Alderdi sozialistarengan bideratuko ditut kritikak. Ez alferrik, Franco hil geroztikako 44 urtetatik 28tan alderdi horrek agindu baitu: Felipe Gonzalez (1982–1996; horietatik zortzi gehiengo absolutuarekin); Rodriguez Zapatero (2004-2012) eta Pedro Sanchez (2014-2016 eta 2018-2022). Hortaz, sozialismoak badauka erantzukizunaren zati nabarmena egin denaz eta egin ez denaz.

Egiaz, etsigarria (amorragarria, frustazio eragilea...) da demokraziaren 44 urtetako balantzea: diktaduraren injustiziari demokraziaren injustiziarekin erantzun zaio. Ez da nirea bakarra iritzi hori, baita biktima zuzenena, memoria-

elkarteen edo nazioarte mailan giza eskubideen arloan lan egiten duten hainbat erakundeena (NBEko giza eskubideen edo desagerrarazien lan-taldeak, Amnistia Internacional...).

Eragile horiek behin eta berriro nabarmendu dute frankismoak eta bere krimenek inpunitate osoa bizi izan dutela azken 44 urtetan. Krimenak ikertzeko eta epaitzeko legerik ez da ezarri, eta ondorioz, ez dira ikertu, ezta frankistarik atxilotu, eta gutxiago epaitu. Horrexegatik, hainbat biktimek eta elkarteek Argentinako justizia-epaitegieta jo behar izan dute, justizia eske.

Alderdi sozialistak biktimen eta giza eskubideen alde “zer egin duen” neurtzeko orduan frankismoaren oinordeko biologikoa eta ideologikoa den eskuinarekin alderatzen bada, noski egin duela “zerbait”; hobi komunetatik gorpuak ateratzeko sos bat eman ez izanaz harro-harro agertzen ziren Aznar edo Rajoyren aldean, jakina egin duela “zerbait”.

Ezinbestean, Franco hil geroztik 1978an hitzartu zen trantsizio politikora jo behar dugu memoria historikori lotutako politika publikoa aztertzeko orduan.

Biktima, memoria-elkarte eta historialari askoren iritzia da ez zela nazioarte mailan giza eskubideen arloan eskatzen den printzipiorik bete; alegia, “egia, justizia, erreparazioa eta ez errepikatzeko bermeak” albo batera utzi zirela, amnesia historikoa ezarri *de facto*. Eta testuinguru horretan alderdi sozialistaren jokabidea aztertzerakoan, analisi kritikoa egiten dute: hots, Gonzalez eta Guerrak Suresnesen 1974ko kongresuan alderdiaren gidaritza hartuz geroztik, men egin ziotela frankismotik

zetozen indar faktikoek (aparatu politikoa, eliza, justizia, ejertzitza, botere ekonomikoak...) planteatu zuten trantsizioari.

Bizkorrak izan ziren Gonzalez eta Guerra, garbi-garbi ikusi baitzuten frankismo kriminalarekin haustura planteatzeak eta bere botere faktikoak auzitan jarri nahi izateak “komeriak” ekar ziezaieketela, eta hobe zela, men egitea proposamenari. Etorkizunera begira, aurreikusten zuten bipartidismoaren sistema ezarri zitekeela; hots, eskuina batetik, eta bestetik alderdi sozialista zeudela deituta paper hori jokatzerara. Bi politikoa sinetsita zeuden bazeukatela mezua Espainiako sektore progresistaren zati handi bat bereganatzeko: “gu gara progresismoa, eta guri botoa ukatuz gero, badakizue, frankisten oinordeko erreakzionario horiek datoz”. Horrela, bikain asko praktikatu dute diskurtso hori hamarkadetan, tarteka neurri sozialki aurrerazaleak erantsiz (abortoa, dibortzioa, homosexualen ezkontza...). Hori bai, apenas ukituz frankismoa 1936an indarrez boterera eraman zuten, eta gero 40 urtez babestu, sustatu... zuten aipatu botere faktiko horiek. Lezio hori ondo barneratu zuten 1978an.

Oso bestelakoa da, jakina, alderdi sozialista berak denboraldi historiko horren gainean egiten duen interpretazioa. Trantsizioa, orduan egin zitekeen prozesu politikorik zentzudunena, errealistena eta sinesgarriena (Sahararekin, antzeko parezido egunotan) izan zela; aukera bakarra izan zela “bi

“FRANKISMOAREN ORRIA IRAKURRI GABE EGIN ZELA AUERRERA” AITORTZAN BAT ETORRIKO GARA

Espainien” arteko berradiskidetasunaren zein bizikidetzaren eta gizartearen modernizazioaren onerako, eta gainera, frankistak demokratizatzea lortu zela. Asko zor diola Espainia demokratikoak sozialismoari, eginkizun horretan, alegia.

1978ko trantsizio politikoari buruzko bi interpretazio arras muturrekoak dira bata eta bestea, eta nekez iritsiko dira kontsentsura. Baina iruditzen zait, zintzoak izanda, bat etorriko garelako aitortzean “frankismoaren orria irakurri gabe egin zela aurrera”.

1978az geroztik, erail eta desagerrarazien zenbat eta zenbat alargun, anaia-arreba, seme-alaba... ez ote zaizkigun joan, inongo aitormenik jaso gabe; “ETAren biktimei aitortzen zaiena, zergatik ez guri?” galdetuz joan ere, etsipenez. Beren senide desagerraraziak topatu gabe joan dira, eta gainera, jakinda, egungo justizia administrazioan oraindik ere “heriotza merezi zuten gaizkile” gisa azaltzen direla, izan ere estatua ez baititu indargabetu nahi epaile frankisten sententziak.

Frankismoak erail eta desagerrarazitako ehun milatik gora gorpu oraindik bide bazterretan egon daitezkeela, estimatzen da. Izugarria, lotsagarria... da demokratizatza daukan mendebaldeko estatu batentzat halako errealitatea edukitzea. 1978-2002 epean, estatua ez zuen hatz bat mugitu desagerrarazi horien alde. 2002az geroztik, beren familiarren, eta batez ere, biloben eta memoria elkarten ekimenez abiatu da hobiratze kanpaina. Horiengatik ez balitz, ahaztuerarik injustuenean jarraituko lukete egun ere.

Batik bat gizarte presioari esker Zapateroren garaian 2007an onartu zen memoria historikoaren legeak oso gutxirako balio izan du “egia, justizia eta aitormena”ri

begira. Inkulso, horren eskandaluzkoa den hobi komunaren kapituluaren ere, estatua ez du bere gain hartu (estatu-auzi gisa) injustizia historiko horren konpontzea. Egin duena, zera izan da: tokian tokiko autonomien borondatearen esku utzi diru-laguntzak exhumazioetara bideratzea (esango didazue eskuinak agintzen duen tokietan, zenbateko “borondatea” dagoen...).

Bestalde, Franco Cuelgamuroseko hilerritik atera izana lorpen gisa saltzea ere, kritikagarria da. Gehiago dirudi efektistatik asko duen ekintza izan dela, daukan sinbologiagatik. Ematen du ezkutatu nahi izan dela atzean dauden beste hainbat errealitate. Besteak beste, ahaztuta segitzen baitute, bertan usteltzen, beren eta beren familiarren borondatearen kontra lurperatu zituzten 18.000 errepublikanoak. Edota, ezkutatu nahi da, Franco familia diktaduran egin zela estatuko familiarik aberatsenetakoa (krimenak, presoan lan esplotazioak, botere ustelkeria eta beste hainbat praktika erabiliz), eta demokrazian inpunitate osoz aberasten jarraitu duela (familia horren antzera, beste makina bat; Luis Medina komisioistaren familia, kasurako). Azken batean, Francoren gorpuak eta Erorien Haranak ilustratzen dezakete Espainiako demokrazian gertatu den desmemoria historiko salagarria. Hauze da datua: genozida bat, 44 urtetan, estatu demokratiko baten ardurapeko eraikin publiko batean, lekuri pribilegiatu eta ohoretuenean egon otean, lekuz aldatu egin dute. Bere milaka eta milaka biktimek, ordea, berak lurperatu zituen leku berean –egurrezko kutxetan usteltzen eta elkarrekin pilatuta– segitzen dute, egun.

POSTONTZIA

HERRI MUGIMENDUKO KIDEAK ANDOAIN

Herrian lanean jarraituko dugu, auzolanean

Santa Krutz jaiak oso kuttunak dira andoaindar guztientzat. Bezpera egunetan antzematen dira barranean gogoia, urduritasuna, motibazioa, ilusioa... Gainera, aurtengoak, bereziak zetozen. Bi urteko geldialdi behartuaren ondoren, betiko jaiak gozatzeko aukerak denok pozten gintuen.

Jaiak badira gozamenerako parada, baina baita urtean zehar aurrera eramaten diren borroka eta aldarrikapenei bere lekua egiteko tokia ere. Denon gozamenerako auzolanean eta herriatik antolatzen diren jai herrikoietan sinisten dugu. Eta hori aurrera eramateko balore batzuetan. Jai herrikoia, inolako erasorik gabeak, gurekin ez daudenak gogoan izango ditugunak eta hainbat borrokei ere beren oihartzuna emango dienetan sinisten dugu.

Aurre prestaketetan asteak pasa ditugu: erasoen aurkako protokoloa prestatu eta eragile ezberdinekin lantzen, kaleak aldarrikapen pankarta eta kartekez betetzen... Eta gure "sorpresarako", jai bezperan, EAJ-PNV eta PSE-EE alderdiek osatutako udal gobernu taldeak goitik beherako garbiketa agintzen

dute. Festetan dena garbi egon dadin, eta bereziki udal gobernariak parte hartzen duten Ikurrinaren jaitzieran gure aldarrikapen bat bera ere egon ez dadin.

Beste behin ere, argi geratzen da zeinen erraza den herri eragileekin batera sortutako protokoloaren kanpaina egin eta irrifartsu argazkia ateratzea, eta gero txosnagunea gune seguru bihurtu nahi duten "erasorik ez" pankarta guztiak kentzeko agintzea. "Han edo hemen erosi Andoainen" eta merkatarien aldeko kanpainak aurrera eraman eta Irizarren greban dauden langileen borroka isilarazten saiatzea.

Kamaren aurrean betiko aurpegia ezkututzen jarrai dezatela batzuek. Bitartean, langileok, feministok, ikasleok, ekologistok, presoen senide eta lagunok, herrian lanean jarraituko dugu, auzolanean.

"LANGILEOK, FEMINISTOK, ERAGILEOK... LANEAN JARRAITUKO DUGU AUZOLANEAN"



Pintxo irabazlea. AIURRI

Pintxo lehiaketaren arrakasta

Santa Krutz jaietan irabazle izan eta gero, aurreko asteburuan pintxo berria eskaintzen hasi ziren Hiru jatetxeak. Kroketa bat da, osagai bereziekin: pikillo konfitatua eta gazta, bi testuratan. Horixe da 2022ko Santa Krutz jaietan pintxo lehiaketan irabazi duen jaiaren deskribapena.



Andoaingo anbulatorioa. AIURRI

Positiboak biderkatu dira Andoainen

Kasu positiboaren hazkundea nabarmena izan da Andoainen, 75 kasu ofizial batu baitira azken astean. Igoera ez da isolatua izan, baina bai beste eremuetan baino nabarmenagoa. Gipuzkoako batz bestekoaren gainetik dago.

POSTONTZIA

EH BILDU ANDOAIN

Lanean aritu direnak zoriondu nahi ditugu

Amaitu dira aurtengo Santa Krutz jaiak. Urtez urte zerbait arrunta eta ohikoa izango litzatekeena berezia izan da oraingoan.

COVID-19ak sortutako osasun krisiaren ondorioz, 2019. urtean ospatu genituen azkenengo aldiz hain kuttunak ditugun jai hauek. Eta denok genuen gogoia eta beharra agerian geratu dira. Umore onez, eta parte hartze masiboarekin joan baitira jaiak.

Gaur gaurkoz dugun informazioaren arabera ez da eraso sexistarik izan, salaketarik ez da jaso behintzat. Espero dezagun datozen egunetan egoera hau baiezatzatzea. Norabide horretan Udaleko Berdintasun Sailetik jarritako "puntu morea" eta mugimendu feministaren lana eskertu nahi dugu ere. Egindako sentsibilizazio eta ahalduntze lanak bere eragina izan duela uste dugu.

Santa Krutz jaiak hamarnaka herritar eta herri elkarten lan eskergari esker ateratzen dira aurrera. Auzoetako jai guztietan gertatzen den bezala ordezkazina den lana egiten dute.

Bolondres hauek guztiek egiten duten lanari esker, herritarrok ondo pasatzeko aukera dugu, gure kulturaren transmisioan jarraitzeko aukera ematen da, eta herriaren egoera sozioekonomikoa indartzeko aukera bat sortzen da. Hau publikoki aitortzea derrigorrezkoa da guretzat.

Norabide horretan, eta testuinguru sozioekonomiko berrian, prezio igoerak direla edo administrazioak eskatzen dituen baldintzak bete ahal izatea gero zailagoa da herri ekimenean dabiltenentzat. Gero eta zailagoa da aurrekontu txikiarekin dabiltenentzat programak osatzea. Honen gaineko hausnarketa ireki behar dela uste dugu.

Eztabaida hori lehenago edo beranduago eman beharko da. EH Bilduk irizpideak berrikusteko beharra ekintzekin garatuko du etorkizunean ere.

"BOLUNTARIOEK EGINDAKO LANARI ESKER HERRITARROK ONDO PASATZEKO AUKERA DUGU"



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeiz ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urrietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugarte Mendia. idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urdieta).

Diseinua: Golena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.





Jorge Segurado alkatea eta David Rosco zinegotzia hedabideen aurrean egindako agerraldian. UDALA

Urnietako merkataritza indarberritzeko premia

Tokiko merkataritzaren gainbehera islatzen duten bi adierazle irauli beharko lirateke. Urnietarren % 50ak herritik kanpo egiten ditu erosketak. 2008ko krisiaz geroztik, 30 merkatalgune itxi dira herrian

Erredakzioa URNIETA

Aurkeztu du jada Urnietako Udalak herriko Merkataritza Indarberritzeko Plan Berezia (MIPB), “tokiko merkataritza hobetzeko eta modernizatzeko” xedez. Jorge Segurado alkateak eta David Rosco Gizarte Sustapen eta Garapen pertsonaleko zinegotziak eman zituzten xehetasunak aste hasieran emandako prentsaurrekoan. Planaren sorkuntzan, ezinbestekoak izan dira, Udalaren ahotan, “On Bizi” merkatarien elkartearen kolaborazio aktiboa eta, bestetik, Ikertalde enpresaren laguntza. Horrez gain, prozesuan, herriarrek ere, parte-hartzaile gisa, lekua izan dute. Agerraldia astelehen goizean egin zuten, eta arratsaldean jendaurreko aurkezpena egin zuten Lekaion.

2021. urteko irailean ekin zion Udalak Planaren lanketari, Roscok adierazi lez. 500 urnietarri inkestak egin zitzaizkien, telefonoz eta kalean. Ondoren, herriko merkataritza-eskaintza

aztertu zen merkatarien lankidetzarekin, eta, azkenik, sektorearekin partekatu ziren egindako lana nahiz bildutako datuak, azken ekarpenak jasotzeko eta plana borobiltzeko.

Erosketak, herritik kanpo

2008. urtean 107 establezimendu zeuden Urnietan, eta 2021ean, aldiz, 77. Hortaz, urte horietan guztietan, 30 establezimendu galdu dira. Urnietan erretratu hori bera egotea hainbat faktorekin lotu zuen zinegotziak. Lehenik, “merkataritzaren sektorea egiturazko eraldaketa-prozesu sakon batean” murgiltzera eraman dute, haren adierazpenez, 2008ko krisi ekonomikoak zein 2020an hasitako pandemiak: “Bi

urteotan, nabarmen aldatu da bizitzeko eta kontsumitzeko modua, trantsizio digitalak pisu handia hartu baitu eta online erosketak egiteko joera asko hazi baita”. Hari horri tiraka, sektorean bezeroekin komunikatzeko bide berriak bilatzearen garrantzia nabarmendu zuen, bezeroen premiei ahalik eta modurik zehatzenean erantzuteko.

Kontsumo-ohiturei begira ere ipini zen zinegotzia: inkesten erantzunetan oinarrituta, “aniztasuna, erosotasuna eta erraztasuna” medio, herriarren %50ak herritik kanpo egiten ditu erosketak egunerokoan. Horietatik gehienak saltoki handietara joaten dira (%30); beste

zenbait, ostera, inguruko herrietara (Hernanira, %28) edota Gipuzkoako hiriburura (%23).

Horrenbestez, Roscok uste du faktore horiek guztiek zuzenki eta modu larrian eragina izan dutela gertuko merkataritzan. Horregatik guztiagatik, tokiko dendak egungo egoerara egokitu beharrean daudela uste du zinegotziak. Haren aburuz, teknologia berriak txertatu beharko dituzte, eta bezeroei egokituriko “esperientzia erakargarria” eskaintzeko gai izan behar dira, erraztausnak eman, “kalitatezko balio erantsia” sortzeko: “Kontsumitzaileak edozer eskuratzeko aukera zabalak ditu, eta, horrenbestez, herriko merkataritzak bere lehiakortasun maila handitu beharko du bezeroarekiko hurbiltasunetik, profesionaltasunetik, ezagutzatik eta konfiantzatzat abiatuta”.

Bost ardatz

Merkatal espazioa edo hirigintza, Urnieta komunitatea, animazioa nahiz dinamizazioa, gobernantza eta lehiakortasuna. Bost puntu horiek dira planaren bizkarrezur, eta, Roscoren hitzetan, lehiakortasunari emango zaio lehen-tasuna: “Agertoki globala asko gogortu da, eta, ondorioz, lehiakortasuna inoiz baino beharrezkoagoa da. Mundu digitalaren sarrera da azken urteotan merkataritza-sektorean eragin handiena izan duen alderdietako bat, eta beharrezkoa da saltokiek 2.0 ikuspegia sartzeari beren dinamikan”.

Hala, bi lehiakortasun mota bereizten ditu Planak: banakakoa eta kolektiboa. Lehenengo puntuak merkatalgune bakoitzak hartu beharreko erantzukizunari egiten dio erreferentzia. Bigarrena, ostera, bi ardatzetan banatzen da; “On Bizi” elkarteak, batetik, eta, enpresen edo establezimenduen arteko lankidetzak, bestetik. Bezeroak fidelizatzeko eta balio erantsia eskaintzeko indar eragile bihurtu daitezke saltokien arteko lankidetzaren harremana, Planean azaldu legez. Hori horrela, elkartearen dinamika goraipatu zuen zinegotziak: “Saretze dinamika horri jarraitzea eman beharko zaio, gero eta kide gehiago elkartearen sartzeko, establezimenduetako arduradunen inplikazio maila handitzen joateko eta etorkizunean jarraitu beharreko estrategia definitzeko”.



Ermotegiko eremua. BRITAC

Ermotegiko etxebizitzaren zozketa, hilaren 18an

25 etxebizitza zozkatuko dira, salneurri tasatuan.

1, 2 eta 3 logelako etxebizitzak dira

Erredakzioa URNIETA

Ermotegiko eremuan eraikitako 25 etxebizitza tasatuak notario aurrean zozkatuko dira Saroben, datorren maiatzaren 18an iragarri duten ekitaldian. Arratsaldeko 16:00etan abiatuko da zozketa. Udalak emandako datuen arabera, 1, 2 eta 3 logelako etxebizitzak dira; eta baita egokitutako etxebizitza bat ere. Prezioei dagokionez, tamainaren arabera 174.000 eta 274.000 euro artekoak izango dira. Eremu horretan denera, 130 etxebizitza eraikiko dituzte. Tasatuak 25 dira, babes ofizialekoak beste 25. Eta 80 salmenta librean aterako dira merkatura.

Zozketan parte hartuko duten hautagaiak

Zozketan parte hartuko duten hautagaien zerrenda otsailean argitaratu zen Etxebidaren webgunean. Hala ere, Urnietako Udalak ohar bidez azaldu duenez, “etxebizitzaren sustatzailea den Britac Proyectos SL enpresak abisu bat bidaliko die zozketan izena eman duten pertsonen, bertaratzetik izango duten baieztatzeke”. Ermotegiko etxebizitzaren inguruko informazio osoa Etxebidaren webgunean edota enpresa-erakitzailari deituta lor daiteke.

**IKERTALDEREN
AZTERLANAREN
ARABERA EROSKETA
GUTXI EGITEN DA
HERRIAN BERTAN**

**AZKEN HAMALAU
URTETAN DENDEN
GAINBEHERA
KEZKAGARRIA DA.
30 GUNE ITXI DIRA**

Alokairurako diru-laguntza deialdi berria zabaltzeaz da

Errentan bizi diren 18 eta 30 urte arteko gazteek eska dezakete. Gehienez 250 eurokoa da laguntza

Erredakzioa ANDOAIN

Hirugarren urtea da laguntza-lerro hau sustatu dela Andoaingo Udaletik. Helburua gazteen emantzipazioa sustatzea da. Lainez alkatearen eta Gizarte Zerbitzuetak buruaren ahotan, “bere kabuz bizitzen hasteko bide horretan baliabide eta bi-tartekoak erraztu behar dizkiegu, Andoaingen euren bizitza egitasmoa osa dezaten”. Laguntza kopurua norberaren errentaren arabera izango da, baina gehienez ere 250 eurokoa izango da.

Maiatzaren 25ean abiatuko da ekimena, eta interesatuek ekainaren 4ra bitarteko epea dute. Ataria udaletxean bertan dagoen Udal zerbitzuan edota Andoaingen eus webgunean aurkeztu behar da proposamena.

Onuraduna izan daitekeen eskatzailearen profila

- Etxebizitza partekatzen duten 18-30 urte bitarteko gazteak.
- Eskatzaileek ezin dute etxebizitzaren jabe izan.
- Ezingo da familia-loturarik izan errentatzailearen eta errentariaren artean.

Etxebizitzek bete beharreko baldintzak:

Alokairuko etxebizitza Andoaingo udalerrian egon behar du. Ez dira laguntza deialdian sartuko babes ofizialeko etxebizitzak, logelen errentapetzea, baldin eta logelak soilik bertan bizitzeko eskubidea sortzen badu; etxebizitza gisa erabilitako lokalak; eta Bizigune egitarauko alokairu etxebizitzak.

Kanpo geratuko dira, alokairuaren prezioa 750 eurotik gorakoa duten etxebizitzak, urtebetetik beherako errentapetze-kontratuak edota beste udal-lansail edo erakunde autonomo batzuen egitarauetara jo behar zuten eskatzaileak



Ramadanari amaiera emateko askari modukoa izan zen Zumeatarra elkartearen eskaini zutena. AIURRI

Familia lagunaren bilkura Zumeatarra elkartearen

Aurrera darrai “Su-artean, gure-artean” egitasmoak, Ongi Etorri Eskolararen bitartez. Kulturak eta zaporeak uztartuz, Andoaingo bizilagunak elkar ezagutzeko ekimena da. Laugarren saioa Zumeatarra elkartearen izan zen, maiatzaren 5ean

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Ongi Etorri Eskolara ekimenaren eskutik, Afrika iparraldeko kutsuko askaria antolatu zuten Zumeatarra elkartearen. Maiatzaren 5ean Magreb aldeko familia ugari hurbildu zen Belabi kale-
ra, elkartearen hainbat kiderekin

eta bertako lagunekin batera arratsalde atsegina igaroz. Familia lagunaren laugarren bilkura izan zen, elkarte gastronomikoen inplikazioarekin aurrera ateratzen ari dena. Laugarren honetan Ramadanaren amaiera ospatzeko baliagarria izan zen. Mu-

sulman erlijioako ama eta seme-alaba ugariaren topaleku bilakatu zen. Baghrir, Msmen eta beste hainbat jaki goxo dastatzeko aukera izan zen. Eta baita tea ere, mimo handiz egindakoa. Maroko aldekoa eta Mauritania-koa, bi aldaerak aukeran ziren.



Mauritaniako eta Marokoko tearen aldaera ezberdinak dastatu ahal izan ziren. AIURRI



Ama eta seme-alaba askoren bilgune izan zen Zumeatarra elkartearen. AIURRI



Lan eta lan aritu ziren. AIURRI

Su-artean gure-artean ekimena

Ongi Etorri Eskolara ekimenak ikasturte honetan abiarazi du ekimena, Andoaingo Udalarekin batera. Andoaingarra elkartearen abiatu zen Magreb aldeko hitzorduarekin, Ontzan segida izan zuen errumaniar aldeko janari-dastaketarekin, eta Karrika elkartera hurbildu zirenek, Honduras, Venezuela eta Brasil aldeko janariez gozatzeko aukera izan zuten. Laugarrena aurreko astean egin zen Zumeatarra elkartearen. Jendetsuena izan zen, bertara Magreb aldeko familia ugari elkartu zelako. Baina baita bertako lagun ugari ere.



Sozialisten ekitaldia izan zen, familiaren parte hartzea izan zuena. AIURRI

"Gertatu zena ez zela inoiz gertatu behar izan esatea falta da"

Artolazabalek eta Lainezek adierazpen bana egin zuten Lopez de Lacalleren erailketaren urteurrenean

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Maiatzaren 7an hogeita bi urte bete ziren ETak Jose Luis Lopez de Lacalle Ondarreta kalean erail zuenetik. Geroztik, senideek eta lagunek omenaldia eskaintzen diote. Aurtengoan, Mari Paz Artolazabal alarguna Alain semearekin eta haren familiarekin agertu zen. Mari Pazek hurbildu ziren pertsona guztiak banan bana agurtu ondoren ekin zioten ekitaldiari. Lore eskaintzarekin abiatu zen, eta segidan adierazpen bana egin zuten Maide Lainez Andoaingo sozialisten idazkari orokorrak eta Mari Paz Artolazabal alargunak. Minutuko isilunearekin eta txalo zaparradarekin amaitu zen ekitaldia.

Memoriaren aldeko hitzordura Maixabel Lasa Juan Maria Jauregiren alarguna, Jose Antonio Rodriguez Ranz Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzako sailburuordea, Mikel Arregi Elkar-

biziko kidea, Gorka Landaburu kazetaria eta dozenaka lagun gehiago hurbildu ziren.

Mari Paz Artolazabalen adierazpena

"Duela hogeita bi urte giroa erabat ezberdina zen. Gaur egun, Jaungoikoari esker, inor ez dute hiltzen baina uste dut elkarbizitzarako oraindik zertxobait falta zaigula. Gertatu zena ez zela inoiz gertatu behar izan esatea falta da".

Maider Lainez sozialisten idazkariaren adierazpena

"Gure gazteen artean biktimen oroimena bizirik mantendu behar dugu guztion artean memoria kolektiboa eta inklusiboa eraikiz, oraina eta etorkizuna bizikidetzan lortzeko. Gazteei gertatutakoa azaldu behar zaie, bake-rako eta tolerantziarako hezi, eta egindako akatsak ezagutu ditzaten".



Minutuko isilunearen ostean ekitaldia txalo zaparradarekin amaitu zen. AIURRI

GURE USTEZ

LANGILEEN BATZARRA

CORREOS GIPUZKOA

Postariak ez du bi aldiz deituko, eta ez da egunero azalduko

Langileok kezkatuta gaude Correos apurka-apurka erakusten ari den utzikariarekin. Herritarrei zerbitzu publiko bat emateko arduradun gisa dituen betebeharrak baztertzen ari baita. Zuen babesa eskatzen dugu sinadura bilketa baten bidez pribatizazioa saihesteko. Arrazoi nahikoak ditugu, eta azalduko dizkizuegu:

1. Herritar eta ekonomia guztientzako posta-zerbitzu unibertsala bermatzea.
2. Galdu behar ez den balio soziala, hurbiltasuna, konfiantza eta giza balioa dugu.
3. Gure zerbitzua eguraldiaren eta krisien gorabeherei erreparatu gabe ematen dugu. Pandemia betean, gure zerbitzua ez zen gelditu.
5. Ez dugu orkestra gizona izan nahi guri ez dagozkigun zerbitzuak ematen, ezta enpresa edo banku handien azpikontrata bihurtu nahi ere.
6. Bulegoen eta lan-ordutegien plantilla murriztu egingo da, eta horrek eragina izango du zerbitzuaren kalitatean.
8. Herritarren interes orokorren aurrean espekulazio- eta negozio-interesak saihestu behar ditugu.
9. Postariz hustutako Espainia bat dago, eta landa-postariaren figura desagertu daiteke.
10. Aldaketak egiteko prest gaude, baina beti ere enplegatu publiko gisa dugun zereginari eutsiz, "Posta zerbitzu unibertsala" kontuan hartuta.

Manifestazioa Donostian

Maiatzaren 14an, larunbat honetan, manifestazioa abiatuko da eguerdiko 12:00tan Boulevardetik Urdanetaraino.



Bere, Ruiz eta Urtasun izan ziren erakusketako irekiera-ekitaldiko hizlariak. AIURRI

Kanpezuko udalekuen berrogeita hamar urteak, irudi bidez azalduta

Erakusketa zabalik dago Bastero Kulturgunean, maiatzaren 28ra bitarte

Xabier Lasa ANDOAIN

La Salle Berrozperen Kanpezuko udalekuen 50. urteurrena islatzen duen argazki erakusketazabalik dago Bastero Kulturgunean. Kanpaldian modu batera edo bestera parte izan duen eta parte hartzen segitzen duen lagun ugari hurbildu zen irekierara. Erakusketa maiatzaren 28a bitarte ikusgai egongo da.

Ekitaldi-sorta

Ekimenik ez zaie faltako LSB-koei, efemeridea behar bezala ospatzeko. Hala nola, "Kanpezu 50 1972-2022" liburuxkaren aurkezpena, Kanpezu herrira eta inguruak ezagutzeko irteera, eta nola ez uztailan egingo duten kanpaldia. Uda bitarte gogoan izango dute "milioi bat izarreko hotela" den kanpaldia.



Jabier Gomez urtetan La Salleko Anaia izan zen. Gero, 26 urte Bolivian igaro zituen.



Manuel Oiartzabal, Sorabillako apaiza, Kanpezuko eragiletako bat izan da. AIURRI



Nepalgo Dorje Lakpa mendia 6.966 metrokoa da. MADDOZ



Iker Madoz eta Mikel Inoriza hurbilduko dira euren espedizioaren berri ematera.

Ikus-entzunezko bikoitza Zanpatuzen eskutik

MENDIZALETASUNA Iker Madoz nafarrak eta Mikel Inoriza arabarrak eskainiko dute lehen emanaldia, Nepalen dagoen Dorje Lakpa mendiari buruz; Joseba Oiarzabal eta Andoni Urbistondo urnietarrek Peruko, Huayhuash izeneko, atariko gisa

Andoni Urbistondo URNIETA

Zanpatuz mendi taldeak emanaldia antolatu du hurrengo ostegunerako, maiatzak 19 dituela, Urnietako Udalarekin elkarlanean, Saroben. Arratseko 19:00tan da hitzordua, eta bi emanaldi eskainiko dira: Nepalgo Dorje Lakpa mendia, 6.966 metrokoa, eta Huayhuash mendikateko trekking-a, Perun. Bi aktibitateak iazko urrian egindakoak dira. Sarrera librea da, eta bi modu daude tokia gordetzeko. Bime.me plataforman, on line, edota Sarobe bertan hartuz sarrerak, astelehenetik ostiralera (ordutegia: 09:00-13:00 / 16:00-20:00).

Joseba Oiarzabal eta Andoni Urbistondo urnietarrek eskainiko dute lehen emanaldia, 20 minutukoa. Iaz Hego Amerikan izan ziren, Perun, Huayhuash mendikatean. Cordillera Blanca ezagunaren ondoan dagoen mendikatea da Huayhuash, hura baino askoz ezezagunagoa, eta konparazioan, askoz jende gutxiago erakartzen duena. Besteak beste azpiegiturak ere askoz oinarritzkoagoak direlako. Huayhuash mendikatea 30 kilometro da luze, eta 10 zabal, eta

sei mila metrotik gorako zazpi mendi ditu. Horien artean dago Yerupaja izeneko, 6.634 metro, Peruko bigarren mendi garaia, Huascaran ezagunaren ostean (6.768 metro).

Huayhuash-eko trekkinga 10 egunekoa da, eta ia egunero 4.000 metrotik gora egiten dute bidea trekking zaleek. Hainbat glaziar laku eder eta tontor ikus-

garri ikusten dira ibileran, eta baldintzak nahiko deserosoak dira. Ur berorik ez, trekking osoan, eta sakelakoa argazkiak ateratzeko baino ez, ez baitago estaldurarik apenas. Eguraldia ere kaskar samarra izan zuen bikoteak, elurra eta euria ia egunero. Egun pare batean 5.000 metroko langa gainditu zuten, eta majo sufritu.



Joseba Oiarzabal eta Andoni Urbistondo urnietarrek eskainiko dute lehen emanaldia, 20 minutukoa. URBISTONDO

Perutik Nepalera

Bigarren pelikula Iker Madoz eta Mikel Inorizaren eskutik etorriko da. Mendi gidaria da Madoz, iruindarra, eta urtebete pasa darama lanean, irteerak gidatzen. Pirinioetan eta Alpeetan ibiltzen da batez ere Madoz, eta orain gutxi Suitzako Oberland eskualdean egon da mendi eskia egiten. Eskalada, mendi eskia eta mendi irteerak gidatzen ditu batez ere, Euskal Herriko eta atzerriko taldeekin. Inoriza lagun, iaz Nepalgo Dorje Lakpa mendira egin zuten igoera kontatuko du.

Mikel Zabalza alpinista eza-gunarekin batera ibiltzen da Madoz mendian, eta hura 30 urte atzera 6.966 metroko mendian egon zela baliatu zuten, bertaratzeke. Zabalza 1992an egon zen, ipar aurpegitik. Madozek, Inorizak eta beste lau mendizalek taldea osatu, eta emanaldia eman duen bikoteak hego paretatik igotzea erabaki zuten: "Ez da mendi tekniko, eta gustura aritu ginen, bai mendian, baita mendiraino iritsi bitarteko bidean ere". Izan ere, igoeraz gain Nepalgo Langtang bailaran bizi izan zituzten momentuen kontakizuna ere egingo dute Madozek eta Inorizak. "Mikelek nik baino gehiago, hitzontziagoa baita", dio umoretsu Madozek.

Igoera haren emanaldi pare bat eskaini dituzte, dagoeneko, eta harrera ona izan duela dio Madozek. Horregatik, urnietarrei eta inguruko mendi emanaldien zaleei Sarobera bertaratzeke deia egin du, bi pelikula interesgarriekin gozatzeko.



Zuriarrain eta Aranguren. ANDOINGO

Euskaldun Txapelketako lider berriak, Andoaingoak

Andoaingo Txirrindulari Eskolako neskak denboraldi bikaina burutzen ari dira. Azken egunetan Arabako lurretan parte hartzen aritu dira. Astez aste lortzen ari diren sailkapenekin, kadete mailako Irati Aranguren eta junior mailako Izaro Zuriarrain Euskaldun Txapelketako lidergotza eskuratu dute. Aitor-tza polita txirrindularientzat eta klubarentzat.



Asier Rajado. ZUMEATARRA

Txakalaldiak izanda ere, Asier Rajado aurrealdean dabil

Nafarroa Xtrem 35 kilometroko eta 1.900 metroko desnibeleko mendi lasterketan parte hartu zuen, eta 20 eta 30 kilometroen artean arazoak eduki arren, bosgarren helmugaratu zen. Maila ona eskaintzen ari da aste hauetan. Izan ere, hilaren hasieran Sampol Experience 28 kilometroko eta 1.250 metroko desnibeleko proban garaile izan baitzen.



Andoaingo taldea Idiazabalen. AIURRI

Andoain-Alegia Herriartekoan, ostiral honetan Arraten

PILOTA Idiazabal gainditu eta gero, Andoain final zortzirenetan da eskuzkoan. 19:30ean hasiko da lehia

Erredakzioa ANDOAIN

Idiazabal eta Andoain izan dira aurtengo Herriartekoari hasiera eman diotenak, final hamaseirenak jokatu duten herri bakarrik izan baitira. Aste honetan abiatuko dira azken hamasei taldeak eta bertan izango da Andoain herria. Alegia taldea izango du aurrez aurre, eta joanekoa Arraten jokatu da ostiral honetan iluntzeko 19:30ean hasita.

Joanekoan eta itzuleran, Andoain Idiazbalen aurretik

Joanekoan Andoain 2-1 gailendu zen, eta aurreko ostiralean jokatu zen itzuleran ere 2-1 nagusi ziren andoaindarrek.

Lehen partidari Beñat Salbador eta Eneko Uriak jokatu zuten eta garaipen nahiko erraza eskuratu zuten (22-9); lehen tantotik izan ziren nagusi. Salbadorrek ez zuen ia hutsegiterik egin eta defentsa bikaina erakutsi zuen. Hori gutxi balitz, Uriak aurrean min handia egin zuen.

Bigarren norgehiagoka Eneko Beloki eta Julen Gaztañaga jubenilek jokatu zuten. Andoaindarrek 9-22 galdu zuten arren, norgehiagoka borrokatua izan

zen; markagailuak ez zuen partidaren gogortasuna islatu, nahiz eta aurkariak gehiago izan ziren. Nabarmendu beharra dago, Eneko Belokik ia ezker eskuarekin soilik jokatu zuela, eskuin eskuan mina zuela medio. Gauzak horrela, Gaztañaga atzelariaren abagunea betetzen saiatu zen eta ondo bete zuen papera.

Azken norgehiagokan garaipena eskuratu zuten Imanol Usandizaga eta Aritz Eskudero andoaindarrek (22-6). Usandizagak sendotasun handia erakutsi zuen eta soilik ezker eskuarekin jokatu zuen, Belokik bezalaxe min handia baitzuen eskuin eskuan. Eskudero, pilotari gisa duen indargunean kantxaratu eta lehen koadroetan min handia egin zuen. Andoaindarrek norgehiagoka ona jokatu eta garaipenerako bidea hartu zuten. Andoain herriak aurrera egin du, beraz, Herriartekoan.

IDIAZABALEN AURKA JOKATU DIREN SEI PARTIDATATIK LAUTAN GAILENDU DA ANDOAIN



Leizaran taldea. LEIZARAN

Leizarango senior taldeen denboraldi bikaina

ESKUBALOIA Igoera lortu dute bi taldeek, denboraldi honetan. Kopan mutilak lehen postuan doaz

Erredakzioa ANDOAIN

Liga amaitzeko jardunaldi baten faltan, hirugarren sailkatuak ez du Leizaran harrapatuko. Garaipena behar beharrezkoa zen, eta aurreko asteburuan lortu zuten Tolosan (18-26). Izan ere, azken jardunaldian andoaindarrek atsedendia izango baitute. 1.Lurraldeko senior emakumezkoan lehen bi postuetan sailkapena ziurtatua, Euskal Ligan ariko dira datorren denboraldian. Zorionak! Kluba pozarren agertu da sareetan.

Senior mailako mutilak

Leizaran mailako mutilen taldea denboraldi ikusgarria egiten ari da 2.Lurraldeko mailan. Ia bi hilabete atzera igoera lortu zuen, eta orain Kopan murgilduta dabil. Partidak guztiak irabazi ditu eta dagoeneko ziurtatuta dauka G2 taldeko lehen postua. Azken jardunaldia Urolaren kantxan dute.



Urnietako mendi lasterketa, artxiboko irudian. AIURRI

Adarra Trail mendi lasterketaren lehen edizioa, igande honetan

MENDI LASTERKETAK Andoaingo Goikoplazatik abiatuko da goizeko 10:00etan, eta bertan ipiniko dute helmuga

Erredakzioa ANDOAIN

Proba berria martxan jarriko da igande honetan, eskualdeko korrikalariarentzat aski ezagunak diren parajeetan. Denborak era-kutsiko du probaren etorkizuna zein den. Ingurua aparta da, korrikalari modura zein ikusle modura proba gertutik jarraitzeko. Hain zuzen, 2022 honetan hamar urte bete dira Urnietako mendi lasterketa abiatu zenetik. Lehen ediziotik erreferentziatzko lasterketa izatera iritsi zen, baina arrazoi ezberdinak tarteko lasterketa hura desagertu egin zen. Igande honetan abiatuko denak ez du iraganeko lasterketa harekin zerikusirik. Hori bai, Adarrako igoera berriro ere mendi lasterketen zerrendan sartuko da. Lehiak kirol jarduerari eskaintzen dion motibazio gehigarri horrekin jo eta su ariko dira lasterkariak Urnietan eta Andoain aldeko parajeetan.

ADARRAKO IGOERA MENDI LASTERKETEN EGUTEGIAN SARTUKO DA BERRIRO

Adarra trail

Kirol Sport enpresa da antolatzailea, eta Aiurrik martxoaren amaieran elkarrikizketatu zituen enpresako ordezkari diren Borja Agote eta Josetxo Berasategi. Aurten Andoaindik abiatuko da, baina etorkizunerako ez ditzkiote Urnietari ateak ixten: "Aurten Andoainen hasi eta bukatuko da, baina ez dugu baztertzen etorkizunean Urnietan abiatu eta bukatzea. Andoaingo Udalarai baimena bakarrik eskatu diogu, dirurik ez".

Xehetasunak

- Data: Maiatzak 15, igandea
- Irteera, helmuga: Goikoplaza
- Ordua: 10:00.
- Distantzia: 21.500 m.
- Desnibela: 1.080 m.
- Anoa guñeak: 8 km, 14,5 km.
- Izen-ematea: Adarratrail.com.
- Azken eguna, larunbata.
- Prezioa: 38 euro.

ANTOLATZAILEEK EZ DUTE BAZTERTZEN HURRENGO EDIZIOTAN URNIETATIK ABIATZEKO AUKERA



ITALIAKO GIROA

AIURRI.EUS | @aiurri





EUSKALDUNA

Denboraldi amaiera, Zubietan

FUTBOLA Teknikazio mailako alebinek denboraldiari amaiera emateko Zubietako jardunaldietan parte hartu zuten. Klubak eskertza adierazi die jokalariei eta familiei: "Eskerrik asko guraso eta familiei, zuen animoak eskertzekoak izan dira eta! Gora Euskalduna!".



EUSKALDUNA



EUSKALDUNA

Mailari eustea lortu dute

FUTBOLA Ohorezko kadete mailako mutilek Iraupen Fasea delakoa jokatu dute, eta beste urte batez maila berean jarraitzeko aukera izango dute. Ligaxka amaitzeko jardunaldi baten faltan, bigarren postuan sailkatu daude. Aurreko astean Arrupe taldea garaitu zuten Ubitarten (2-1).



Iturzaeta abiatu da. GAZTELEKU

Iturzaeta pala txapelketa abiatu da, Sorabillan

PALA Bigarren jardunaldia larunbat honetan jokatu da, goizez eta arratsaldez

Mikel Arberas ANDOAIN
Aurreko asteburuan ekin zioten Iturzaeta Pala txapelketa herrikoari, hiru urteren osteko etenaldiaren ondoren. Gizonezkoetan hogeita zortzi bikotek parte hartu dute eta emakumezkoetan bostek; azken hauek, hurrengo asteburuan hasiko dira lehiatzen, txapelketa laburragoa izango baita.

Lehen partida-sortan giro bikaina nabarmendu zen eta jendetza gerturatu zen pala partidak ikustera. Horrez gain, eguraldi ona medio edaria eskatzeko aukera eskaini zuten antolatzaileek. Goizean, lau norgehiagoka jokatu ziren eta, arratsaldean, berriz, hamar.

Lehen partidatan porrot egin zuten bikoteek bigarren aukera edukiko dute asteburuan, lehiaketan jarraitu ahal izateko. Bestalde, asteburuko norgehiagoka galduz gero, Iturzaeta Pala Herriko txapelketatik kanpo geratuko lirake. Nabarmendu beharra dago, tanteo hoberena duen bikote galtzailea ere hurrengo fasera igaro ahal izango dela. Irabazleek astebete itxaron beharko dute berriro ere partidatan murgiltzeko.

Larunbatean goizez eta arratsaldez jokatu da jardunaldi berria, Sorabillan.



Kadete mailako neskak, aurreko partida amaitu ostean. UKE

Kadete mailako neskak Kopako finalean dira, merezimendu osoz

FUTBOLA Eguerdiko 12:00tan hasiko da partida Ordiziako Altamiran, Legazpiren aurka

Erredakzioa URNIETA
David Cuencak eta Beñat eta Aimar Lizaso anaiek zuzendutako neskek txapeldunen kopa Urnietara eramane eta zaleei eskaini nahi diete. Aste askotako lan gogorraren ondoren iritsi da finalera hain preziatua den sailkapena. Neska kadeteek eta Urnieta Kirol Elkarteak datorren larunbatean Ordizian klubeko neskek animatzera dei egin die euren zale eta jarraitzaileei. Zorte on, neskak!

Urnietako Kirol Elkarteak emakumezkoen kadete taldeak larunbatean jokatu du finala, eguerdiko 12:00tan Altamira futbol zelaian (Ordizia). Bere jarraitzailearengandik hiru puntura sailkatu ondoren, Legazpiko Ilintxaren aurka jokatu du finala zelai neutralean.

2021-2022. denboraldiko taldea
• Jokalariak: Aloña De Torres, Ane Martinez, Eneritz Usa-

rralde, Ihintza Manterola, June Urdangarin, Laida Egaña, Leire Vaquero, Leyre Holgado, Lide San Sebastian, Mireia Lopez, Nahia Hernandez, Nerea Del Castillo, Nora Agirre, Nora Navarro, Nora Vega, Oihana Arrue, Leire Gonzalez, Leire Perez, Leslie Thesan.
• Prestatzaileak: David Cuenca, Beñat Lizaso, Aimar Lizaso.

1. KADETE MAILA

KOPA, AZKEN JARDUNALDIA

Euskalduna-Urnietako 0-8

SAILKAPENA

1	Urnietako	39 puntu
2	Usurbil	36 puntu
3	Hondarribia	22 puntu
4	Intxaurdi	17 puntu
5	Euskalduna	15 puntu

FINALA

Urnietako-Legazpi Lar, 12:00. Ordizia

LEGAZPIREN AURKAKO PARTIDA ORDIZIAN JOKATUKO DA, LARUNBAT HONETAN 12:00TAN

JOKALARIEK ETA KLUBAK KOPAKO FINALEAN TALDEA ANIMATZEKO DEIA LUZATU DUTE

Rock Jaialdia Nafarroa plazan, iraganean bezala

Andoaingo Udaleko Kultura Sailak aurreko asteburuan egin zuen jaialdiaren aurkezpena, Marc Ribot musikari handia alboan zutela. Ekainaren 11ko gauan rock doinuak nagusituko dira. Besteak beste, Barricadako El Drogas ariko da zuzenean

Erredakzioa ANDOAIN

Ekainaren 11n Rock Jaialdia itzuliko da Nafarroa plazara, doako kontzertuaren bitartez Andoaingo eta toki ezberdin askotako rockzaleak erakarri asmoz. Aurtengo partaideen zerrendaren berri eman dute, eta ikuslego zabalarentzat El Drogas da nabarmendu den kantaria. Barricadako kidea, aurkezpenik behar ez duen musikaria da. Zuzeneko emanaldi bikainak eskaini ohi ditu, maila handiko musikariekin joz. "Solo quiero brujas en esta noche sin compañía" izena du bere azken diskoak.

The Limiñanas frantziar taldea, berriz, jaialdiko zaletu amorratuentzat aski ezaguna da. 2017an emanaldi gogoangarria eskaini zuen. Bost urte geroago Nafarroa plazako oholdza gainean ikusiko ditugu berritro, "De película" disko berria aurkeztuz.

-Gailu andoaindarren parte hartzea ere aipagarria da.



Txitxu Ruiz zinegotzia, Marc Ribot musikaria eta Juan Carlos Garcia musika eragilea. UDALA

Parlos Sankes frantziarrekin, The Hangin Stars britainiarrekin eta Melenas nafarrekin osatuko da gaua. Doako emanaldia da, arratsaldeko 18:00tan hasiko dena. Ezustekorik ezean, ehunka musikazale elkartzeko dira.

Jaialdiaren aurretik, "Aperitifa"
Rock musika herrigune osora zabalduko da, ekainaren 11n. Eguerdiko 12:00tan Zumea plazan, 13:00tan Juanita Alkain plazan eta 14:00tan Goikoplazan emanaldi txikiak iragarri dituzte.



EGAPE

Egape dantza taldea Usurbilen

Hernaniko Ttarla, Zarauzko Jalgi, Urrietako Egape eta Oiartzungo Haurtzaro taldeak izan ziren Usurbilgo III. Dantzari txiki eguneko gonbidatuak. Eguraldia lagun, Urrietako gaztetxoek jendetzaren aurrean dantza egiteko aukera peregabea izan zuten.



EGAPE

Antia literatur lehiaketa

Saroben antolatutako zuten ekitaldian aditza eman zituzten Antia literatur lehiaketaren saridunak. Hauexek, epaimahaiaren arabera, lan onenak:

Haurren mailan:

1. saria: Ignacio Goikoetxea Pizarro, "Zuk inoiz ikusiko duzun kasurik arraroena".
2. saria: Selma Lekuona Schlegel, "Zirriborroen mundua".
3. saria: Ekaitz Alzuri Dos Santos, "Mahrez eta 40 lapurrak".

Gazteen mailan:

1. saria: Nina Lopez Rodriguez, "Amesti".
2. saria: Irene Ramirez Gonzalez, "Aritz, nire lagun ausarta".
3. saria: Maialen Sanchez Lucio, "Azkeneko eskutitza".



AIURRI

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTIRALA 13

ANDOAIN Erakusketa

Kanpezu 50 urte, La Salle Berrozpe ikastetxeko kanpaldiari buruzkoa. *Maiatzak 6-28. Bastero.*

URNIETA Ikastaroa

Zilegi eskola: hitanoa ikasteko eta hobetzeko tailerra, Rosa Zubeldiaren eskutik. *16:00-18:00, AEK euskaltegia.*

URNIETA Tailerra

"Genero estereotipo eta rolak. Tabu eta mitoak", Urnietako Jabekuntza eskolaren lehen hitzordua. *17:30, Lekaio.*

ANDOAIN Dantza

"Gauekoak", Kukai dantza taldearen eskutik. *19:00, Bastero.*

ANDOAIN Kontzertua

Asanblada Feministaren eskutik Zinez eta Zulo taldeak. 5 euro. *22:00, Gaztetxea.*

LARUNBATA 14

ANDOAIN Kontzertua

Javier G. Sarmientoren "Txikiludioak", Uxue Ricon Ulanga musikariaren eskutik. *12:00, Bastero.*

ANDOAIN Elkartasun jaialdia

Irizar e-mobilityko grebalarien aldeko elkartasun jaialdia. *17:30 Manifestazioa.*
19:00 Elektrotxaranga.
21:30 Kontzertua Gaztetxean:
Little Martin Selekta, Juanxo Arakama, Irtera, Lamiak eta Dantzall Sound. Sarrera: 5 euro. *17:30ean hasita.*

IGANDEA 15

URNIETA Ospakizuna

San Isidro eguneko meza eta hamaiketako antolatu ditu Baserritaren Elkargoak, Urnietako Udalaren laguntzarekin. *12:00, San Miguel eliza.*
12:30 Hamaiketako Lekaion.



Ikuskizuna familiei zuzenduta dago. CIARGALONSO

ANDOAIN Marunica haur ikuskizuna

Bidaia bat Maruja Mallo 27ko Belaunaldiko margolari liluragarriaren munduan barneratzeke. Bere obra askotarikoa, sinbolismo surrealista eta neurrigabekeriak betea, haurren iruditeriarekin konektatzeko bide egokia da. Sormena piztuko duen ikuskizun harrigarri eta bisuala. *Maiatzak 15, igandea. 12:00, Bastero Kulturunea. 4 euro.*

ASTELEHENA 16

ANDOAIN Material bilketa

Ukrainaren aldeko gauza materialen bilketa kanpaina, "Andoain Solidario" taldeak antolatuta. Orduetia: 11:30-13:00 / 16:00-18:00. Biltokia Kaletxikiko Edurne kirolak denda zaharrean dago. Taldearekin harremanetan jartzeko: andoainsolidario@gmail.com. *Maiatzak 16-21, Kaletxiki.*

ASTEARTEA 17

URNIETA Ikastaroa

Zilegi eskola: sendabelarrak ezagutzeko tailerra emango du Maika Cesterrek. Hala, inguruko belarren ezaugarrien berri izango dute bertaratzen direnek. *10:00-12:00, AEK euskaltegia.*

OSTEGUNA 19

URNIETA Ikus-entzunezkoa

Dorje Lakpa eta Huayhuash trekking-eko emanaldiak, Zanpatuzen eskutik. Iker Madoz nafarrak eta Mikel Inoriza arabarrak eta Oiarzabal eta Urbistondo urnietarrek parte hatuko dute. *19:00, Sarobe.*

OSTIRALA 20

URNIETA Ikastaroa

Zilegi eskola: hitanoa ikasteko eta hobetzeko tailerra, Rosa Zubeldiaren eskutik. *16:00-18:00, AEK euskaltegia.*

ASTEARTEA 24

URNIETA Ikastaroa

Zilegi eskola: sendabelarrak ezagutzeko tailerra emango du Maika Cesterrek. Hala, inguruko belarren ezaugarrien berri izango dute bertaratzen direnek. *10:00-12:00, AEK euskaltegia.*

ASTEAZKENA 25

URNIETA Ikastaroa


Zilegi eskola: defentsa pertsonaleko tailerra emango du Manu Iglesiasek. *17:45-19:45, AEK euskaltegia.*

OSTIRALA 27

ANDOAIN Ate irekiera

Euskara ikasi nahi dutenentzat ate irekiera. Izen ematea: andoain@ae.eus. *10:00, 17:00. AEK euskaltegia.*

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****El hombre del norte**


Lar, 14. 19:30, 22:00.
Ig, 15. 19:30.
Asti, 16. 19:30, 22:00.
Go fish
Lar, 14. Ig, 15. 17:00.

Mentes**maravillosas**

Ig, 22. 19:30.
Asti, 23. 19:30, 22:00.
El secreto de Vicky
Ig, 22. 17:00.

Cinco lobitos

Lar, 28. 19:30, 22:00.
Ig, 29. 19:30.
Asti, 30. 19:30, 22:00.



SINOPSIA

**EL HOMBRE DEL NORTE**

Zuzendaria, gidoia: Robert Eggers. **Aktoreak:** Alexander Skarsgard, Nicole Kidman, Ethan Hawke, Willem Dafoe...

Herrialdea: AEB. **Generoa:** Abenturak. **Iraupena:** 136 minutu.

Film txikia bezain handia

Islandian, X. mendean, Skarsgard printze eskandinaviar batek bere aitaren heriotza mendekatu nahi du kosta ahala kosta. Bikingoen kutsuko film eta

serieak bezalaxe, ikusgarritasunez eta akzioz beterikoa da. Kritikoek Robert Eggers zuzendariak giro hipnotikoa sortu duela nabarmendu dute.




andoaINDARRA
euskaraz



Juantxo Arakama Glaukomako kantaria, Urmuga kontzertuan Otietan 2021ean. AIURRI

Manifestazioa Andoainen

Zeresana ematen ari da Andoaingo mugan dagoen Irizar enpresan deitu duten greba. Larunbat honetan elkartasun ekimenak egingo dituzte Andoainen. 17:30ean manifestazioa abaituko da eta 19:00etan. 21:30ean kontzertua iragarri dute Gaztetxean: Little Martin Selektah, Juantxo Arakama, Irtera, Lamiak eta Dantzall Sound taldeak ariko dira zuzenean.



AIURRI

Sarbidea egokitze lanak

Adifeko obrak direla eta, Urnietako Udalak behin behineko pasabidea egokitu du San Juan kalea eta Geltoki kalearen artean. Aste honetan hormigoizko bidexka egokitzen ari dira, oinezkoen pasabidea ziurtatze aldera. Pasabide berria Magale ikastetxearen horma eta geltokiko nasaren artean dagoen berdegunean eraikiko da.



Leitzaran bailaran kirol jardueraz gozatzeko aukera izango da. LEITZARAN

Udako kirol jardueretan izena emateko epea zabaldu da


Leitzaran abentura edo Goizean kirolean izena emateko epea zabalik dago. Datorren astean, Goazen Jolastera

Erredakzioa ANDOAIN
Haur eta nerabeen aisialdia osatzeko udako kirol eskaintza-
ren berri eman du Andoaingo Udalak. Leitzaran abentura,
igeriketa, goizean kirolean, te-
nisa eta bizikleta egitasmoetan
izena emateko epa gaur zabaldu
da. Goazen Jolastera ekimenean
izena emateko epea, berriz, da-
torren astean zabalduko da.

Ikasturtea amaituta, eta San
Juan jaiak igarota, Andoaingo
Udalak udako eskaintzari ha-
siera emango dio. Aisialdiari
lotutako eskaintza zabala da.
2006-2009 urteetan jaiotakoentzat

Goizean kirolean, tenisa eta
bizikleta+kirola egitasmoak aur-
keztu dituzte. Igeriketako udako
ikastaroak 2010-2018koei begira
egokitu dituzte eta Leitzaran
abentura 2008-2011 artean jaiot-
akei. Goazen Jolastera txikienei
zuzendutakoa da, 2014-2019an
jaiotakoei zehazki.

GOAZEN JOLASTERA EKIMENEAN IZENA EMATEKO EPEA MAIATZAREN 16AN ZABALDUKO DA



NOAUA

Zilegi Eskola Urnietan

Askotariko ekintzak antolatu ditu Urnietako AEK-k hilabete honetarako,
Zilegi Eskola medio. Gogoia besterik behar ez dela diote antolatzaileek,
baita parte hartzeko interesa izatea ere. Doakoak dira eta aurrez izena
eman behar da: zilegieskola@ae.eus helbide elektronikora edo 663 04
33 14 zenbakira idatzita. Eskaintza ikusgai Agenda atalean.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Jare
Jarek maiatzaren
12an urte bat
beteko du. Zorionak
maital! Ederki
ospatuko dugu.
Onintza, amatxo,
aitatxo eta familia.



ANDOAIN
Zorionak Jon
Jones 9 urte
bete zituen
maiatzaren 4an.
Zorionak eta
muxu potoloak
etxeko
partetik.



ANDOAIN
**Zorionak izeba
Aizpea!**
Muxu handi bat
Manexen partetik
eta ea noiz
ospatzen dugun.
Mua.



ANDOAIN
Narrea Irazu Roman
Narrea 13 urte
beteko ditu
maiatzaren 12an.
Zorionak eta muxu
handiak etxeko
guztien partetik.

TELEFONO-ZENBAKIAK

OSASUN ALORREKOAK

Andoain: 943 006 670.
Urnietako: 943 006 680.
Osasun Aholkuak: 900 203 050.

MERKATU TXIKIA

MINTZALAGUNA

Andoaingo emakume
pentsioduna hizkuntza
laguntza edo mintza-
lagun bila dabil: Gaz-
telaniaz eta ingelesez
/ danes aritzeko.
Pertsona irekia, eta
jendea ezagutzeko
gogoarekin: [reflexolo-
gist45@yahoo.co.uk](mailto:reflexolo-
gist45@yahoo.co.uk)

ENPLEGUA

Pertsona euskaldun
bat behar dugu Lan-
broa Tabernan lan
egiteko. Interesatuak
kontaktuan jarri [lan-
broataberna1@
gmail.com](mailto:lan-
broataberna1@
gmail.com)-en edo
659 039 922 telefo-
nora deituta.

ODOL-EMAILEAK



HURRENGO HITZORDUAK

Maiatzak 23, astelehena.
16:30-20:30. Urnietan, Gaztelekun.
Hitzordua aurretik, 943 007 885.



Eider Rodriguez. SUSA

Eider Rodriguezek eskuratu du 111 Akademia Saria

Azken urteetako ohiturari jarraituz, sari banaketa ekitaldia Hika txakolindegian izango da

Erredakzioa ANDOAIN

Eider Rodriguezek ekainaren 15ean jasoko du 2021eko 111 Akademiaren Saria. Amasako Hika txakolindegian izango da sari-emate ekitaldia iluntzeko 19:00etan, eta idazle sarituari saria ematearekin batera, liburu sarituko pasartearen irakurketek osatuko dute ekitaldia.

Eraikuntzarako materiala

111 Akademiak apirilaren amaieran jakinarazi zuen aurtan Eider Rodriguez (Orereta, 1977) eman-go diola 2021eko 111 Akademiaren Saria. Akademiakideek Rodriguezen 'Eraikuntzarako

"ERAIKUNTZARAKO MATERIALA" ELEBERRIAGATIK JASO DU 111 AKADEMIA SARIA

materiala' eleberria izendatu dute 2021eko liburutik gogokoen. 212 akademiakide ditu une honetan 111 Akademiak, eta horietako 127k parte hartu dute 2021eko sariduna izendatzeko 2022ko urtarrila eta apirila bitartean burututako hiru bozketaren txandetan. Rodriguezen lanak Itxaro Bordaren 'Euri zitalari esker' eleberria izan du lehakide azken bueltan. Azken urteetako ohiturari jarraituz, Amasako Hika txakolindegian ospatuko da sari-emate ekitaldia.

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak sustatutako ekimena da.

EKAINAREN 15ERAKO SARI BANAKETA EKITALDIA ANTOLATU DU LARRAMENDI BAZKUNAK

Italiako Giroaren xarma Aiurri.eus gunean

Webgunean etapa bakoitzaren kontakizuna egiten ari da Andoni Urbistondo kazetaria. Egunean zehar Giroari buruzko aipamen gehiago egiten ditu Twitterren duen kontuan. Emozioz beteriko hiru aste dira txirrinduzaleentzat, aski gogorrak txirrindularientzat

Jon Ander Ubeda URNIETA

Eskualdean txirrindularitzarekiko zaletasun handia dago, eta egun hauetan askoren gogoia Italian iltzatuta dago. Hai aita Italiako Giroa, eta ohi bezala, Aiurri.eus webgunea itzuli handiaren kontakizuna egiten ari da. Andoni Urbistondo kazetariak idatzi ohi ditu kronikak. Haren tzat Giroa zer den agerikoa da: Itzuli handietan ederrena.

Horrela azaldu zuen proba lasterketaren bezperan: "Amore infinito leloa asmatu zuen behinola RCS talde antolatzaileak, eta lelo horri eusten segitzen dio, amu moduan. Giroak lotu egiten du zalea, hiru itzuli handietan bilakaera ikusgarriena, aldakorrena duena da, eta beste inon ez dauden paisai eta mendi ikusgarriekin. Horregatik, amore infinito leloari Viva Il Giro gehitzeko proposamena. Giroa maite dugulako, eta has-teko irrikan gaudelako".

Datozen etapak

Ostiral honetakoa zazpigarren etapa izango da: "Erne etapa honekin, 3.500 metroko desnibela eta 200 kilometro. Impegnativa, italiarrek usu esaten duten moduan. Monte Sirino eta Monte Grande de Viggiano bide erdian, bigarrenak 6,6 ki-



Juanpe Lopez Andaluziako gaztea Giroko maglia rossarekin. GIROA

lometro %9.1eko batez besteko pendizarekin. Potenzako bukaera, nola ez, bihurria, tricky ingelesez hizkuntzan: 350 metro %8,5eko malda, %13ko tarteren bat ere bai".

Larunbatekoa Napolin hasi eta bukatuko da, eta igandean mendate puska: Blockhaus. "Potentia, indartsua da oso. Eta zenbakiak, beldurtzeko modukoak: Ia 5.000 metroko desnibel metatua, 190 kilometroan. Suteak sortzeko moduko hasiera, hiru-garren mailako mendate bat, bigarren mailako beste bi. Gero

bidea egiteko sasi ordeka, eta azken 50 kilometroetan Passo Lanciano, eta gero Blockhaus bera, Apeninoetako bihotzean. Lancianok 10 kilometro ditu, %7,6ko malda. Blockhaus-ek 14 kilometro ia, eta malda %8,4koa. Azken 10 kilometroak %9,4ra. Mortirolo ere gogorra izanen da, baina Blockhaus... Usabiaga maisuak esango lukeen moduan, 'aldapa zagok hor, Fermin'".

Astelehenean izango dute bigarren atseden eguna. Beharko... Txirrinduzaleok, gogoko baduzue, jarraitu Giroa Aiurriin.

GALARRETA JAI ALAI | SARRERA DOAN



Sagardoaren biakelketa

MAIATZAK 16 ASTELEHENA | 18:00-TATIK AURRERA

URRIZA · ZUBIRI · ALDABE · LARRAÑAGA

EZKURRA II · ZALDUA I · SEGUROLA · AZPIROZ



ORIA MENDI | ERREMONTA BIZIRIK

GIROA MEN

GIROA MEN